



ZALDIBIAko
udala

1

1. irudi honetan, armari zahararen erreferentzia argia egiten da. Orain arte erabili den Zaldibiako irudiaren kanpoaldeko forma erabili da. Gaintzean, erabat sinplifikatu da irudia. Barnean hiru banda erabili dira Zaldibiaren lehen hizkia den "Z" irudikatzeko.

Kolore urdina erabili da, urdinak lasaitasuna eta konfiantza adierazten dituelako. Gainera, uraren kolorea da, Zaldibiako urari erreferentzia eginez. Kasu honetan, urdina ilunetik argiagora difuminatu da. Ezkerretik eskuinera. Honek irudiari bolumena ematen dio.

Irudi soila da lehenengo hau, euskarri eta material ezberdinetan erraz erreproduzitzea ahalbidetzen du eta gogoratzea errazten du.



ZALDIBIAKO
UDALA

2

2. irudi hau "Zaldibia" hitzaren azalpen zuzena da.

Orain arteko armariak ematen zuen azalpen okerra zuzentzen du. Zaldibia - Zaldi ibia. Beraz, zaldia eta bidea ikus ditzakegu.

Armarria sinplifikatuz mantentzea erabaki da, forma honek historikoki gure gizartean izan duen garrantziagatik. Armarria segurtasunaren eta komunitatearen sinboloa da.

Kolore bakarra erabili da oraingoan; urdina. Lasaitasuna, segurtasuna eta konfiantza adierazten ditu, elegantea eta serioa da. Gainera Zaldibiko urari erreferentzia egiten dio.



ZALDIBIAko
udala

3

3. aukera honetan irudi berriago bat bilatu da.

Irudiaren erdian ikusten duguna bi irudiz osatutako "Z" bat da. Hau osatzeko erabili diren formak zaldien oinatzak gogorazten dizkigu, baita bidearen jarrai-markak ere, "Zaldi-ibia"ren ideia indartuz.

Berriz ere, kolore urdina erabili dugu, aurrez aipaturiko arrazoiengatik. Oraingoan, aldiz, urdin argiagoa hautatu da irudiari alaitasuna emateko.

Irudiaren forma karratua da, segurtasunaren ikur, babesarena. Hala ere, karratuaren zurruntasuna ekiditeko marra eta angelu irregularrak erabili dira, malgutasunari erreferentzia eginez.



Zaldibiako udala

4

4. irudi hau kolore eta forma aniztasunak bereizten du, Zaldibiako egungo errealitatea anitza baita.

Gainera, ezaugarri hauek, bizitasuna eta dinamikotasuna ematen diote. Kolore puruak erabiltzea ekidin da, nahasketak lehenetsiz. Herriar ororen elkarbizitza eta kohesioa irudikatuz.

Irudiko kontraforma edo hutsuneei erreparatuz, "Z" eta "B" hizkiak antzematen dira.

"Zaldi-iBia" ideia berretsiz. Zaldibia hitza osatzen duten bi hitzen hizki nabarmenenak azpimarratuz.

